

Mikel Arrieta Etxeberria

B maila • 2 aipamena


Mikel Arrieta Etxeberria naiz, 2004ko irailaren 13an jaiotako mutil beasaindarra. Txikitatik Beasaingo La Salle San José ikastetxean ikasi dut, baina hurrengo ikasturtean La Salle utzi eta beste ikastetxe batera joan beharko naiz. Ez dakit zer aurkituko dudan!

Nire zaletasunak nahiko ohikoak dira: futbola eta lagunekin egotea dira.

Nahiz eta, idaztea eta irakurtzea nire zaletasunen artean ez egon, saiatzeak bere fruituak ematen dituela ikusi dut.

Lehenengo aldiz eman didate aipamen hau, ez nuen espero eta oso eskertuta nago.

Espero dut nire idazlana zuen gustukoa izatea.



OKUPAK BASERRIAN

- Kukurruku, kukurruku. - egin zuen Patxiren oilarrak.

Egunero bezala, Patxi, goizeko bostetan jaiki zen ohetik. Patxi *Bekogieta* baserrian bizi zen betidanik, Gipuzkoako kostaren ondoan kokatutako herri bateko baserri batean. Esan dezakegu Patxi ohiko baserritar bat zela; txapela buruan zuena, abarkak soinean zituena eta ondo jatea izugarri gustuko zuena.

Patxi emaztegabea zen. Bost anai-arreba zeuzkan. Denak ziren *Bekogieta* baserrian jaiotakoak, baina anai-arreba bakoitzak bere bidea hartu zuen. Nahiz eta bakoitzak bere bidea hartu, noizean behin bisita bat egiten zioten baserritarrari. Lau anai-arreba han inguruan bizi ziren, baina Joxean anaia Amurrion zuen bizi izaten. Orain dela pare bat urte Joxeani minbizia zuela esan zioten.

Joxean geroz eta okerrago aurkitzen zen, hiltzeko zorian. Hori dela eta, Patxik, Amurrion joatea erabaki zuen bere anai-arrebekin. Asteburua Amurrion pasatzea erabaki zuten, Joxean anaiaren ondoan egoteko. Patxik ez zuen bere baserria bi egunez abandonatuta utzi nahi, baina beste erremediorik ez zeukala ikustean, baserri kontuak ahaztea eta anaiari laguntzea erabaki zuen.

Hala eta guztiz ere Patxi dezente ardurauta zegoen. Badaezpada ere bere inguruko baserritarrei jakinarazi nahi zien bi egunez bere baserrian inor ez zela egongo:

- Inaxio, bi egunez hegoaldea jun behar neok. - esan zion Patxik Terretxea baserriko baserritarrari.

- Andaluzia jun behar al haiz? - erantzun Inaxiok.

- Ez motel, Amurriona. Nire anaia Joxean gaizki zeok eta asteburue pasa behar diau Amurrion.
-esan zion Patxik.

Eta horrela beste hiru baserritarrekin. Baserritarrak jakinaren gainean geratu ziren, eta horrek, Patxi lasaiago utzi zuen.

Biharkoa egun handia zen Patxirentzat, inoiz ez zelako atera bere herritik. Pittin bat urduri zegoen, baina afari on bat egin eta arratsaldeko zazpiretako oheratu zen.

- Kukurruku, kukurruku. - egin zuen Patxiren oilarrak.

Larunbata zen, Amurriona joateko eguna. Egunero bezala, Patxi goizeko bostetan esnatu zen. Irteera-ordua goizeko zazpiretan zuten. Hori jakinda, Patxik bizkor-bizkor egin zituen baserriko lanak. Hauek amaitzerakoan, gosaldu eta jantzi egin zen. Elegante jantzi zen baserritarra, baina hori bai, txapela ahaztu gabe.

- Txapela buruan, eta ibili munduan. - pentsatu zuen.

Bere anairen, Joxeren, autoan joan ziren bost anai-arrebak bisita egitera Joxeani Amurriona. Bidea nahiko motza egin zitzairen, baina hala eta guztiz ere zenbait gauza harrigarri ikusi zituen Patxik: bidesaria, semaforoak... Inoiz ikusi ez zituen elementuak ziren, eta beraz, harrigarriak egin zitzaizkion.

Halako batean, Amurriona iritsi ziren. Bertan, autoa aparkatu eta ospitaleruntz abiatu ziren oinez. Ospitalera iritsitakoan, bere anaia Joxean ikusi zuten. Ez zegoen bat ere gaizki, itxura ona zeukala esan daiteke. Bisita seiak inguruan amaitu zen, Patxi ohera joaten den ordu berdinean.

- Hoteleaka jun beharko gaituk, lo iteko garaie dek eta. - esan zion Patxik bere anaiei.

- Baina motel, egun bategatik ez dek ezer pasatzen. - erantzun bere anaia Joxek.

Patxi ez zegoen bat ere gustura hain berandu lokartzearekin, baina egun baten gorabeheran ez zela ezer pasako pentsatu zuen.

Igandea iritsi zen. Bost anai-arrebak nahikoa deskantsatuta jaiki ziren bederatziak aldera eta hotelean gosaltzea erabaki zuten. Gosaria amaitutakoan, autoa hartu eta Gipuzkoa alderantz abiatu ziren.

Ordubete inguru pasa eta gero, Patxi bere herrira iritsi zen. Patxiren baserria herritik kilometro erdira zegoen. Patxik bere anai-arrebei baserrian ez uzteko eskatu zien, paseotxo bat egitea ondo etorriko zitzaiolako. Patxi herritik baserrira lasai-lasai joan zen, eta inguruko baserritarrekin ere topatu zen bidean.

- Bizi al haiz, Patxi? - esan zion Inaxio baserritarrak.

- Esan nian. Asteburue pasatzea Amurriona jun neok. - erantzun Patxik.

Bizitzak berdin-berdin jarraitzen zuen bera gabe, baina baserrira iritsitakoan sorpresa handi bat hartu zuen; bere txakurrik gogokoena falta zen.

- Barri, Barri!! - oihukatu zuen Patxik.

Barri ez zen atarian azaldu. Baserriko atea ireki zuen, Barri bertan egongo zela pentsatzen zuelako. Baina txakurraren orde, traste guztiak botata ikusi zituen baserriaren barruan. Baserriko balkoia begiratu eta ezezagun bat ikusi zuen. Nahiz eta 115 kiloko gizasemea izan, Patxi izugarri beldurtu zen.

Segituan baserritik urundu zen eta bere anaia Joxeri deitu zion. Joxek ertzainei deitzeko agindua eman zion Patxiri. Patxik ertzainei deitu zion, baina hauek ezertxo ere ez egin zezaketela esan zion Patxiri. Patxi izugarri haserretu zen. Orduan, bi aldiz pentsatu gabe, Joxeren etxera joan zen. Joxeren etxetik, eskopeta hartu, eta berriz ere baserrira abiatu zen. Hura zen txistua! Formula 1 – eko auto bat ematen zuen!

Baserri-atarira iritsi zenean, pare bat tiro egin zituen airera, okupak beldurtzeko asmotan. Baina, ezin! Halako batean, Joxe anaia azaldu zen.

- Baino zer ai haiz!? - oihukatu zuen Joxek.

- Ezin dizkiat baserritik atera! – erantzun Patxik.

Baserri-atarian elkarrizketa luze bat mantendu ostean, bi anaiak baserritik urundu ziren. Azkenean, Joxek Patxi konbentzitzea lortu zuen. Esan zion ezinezkoa zela indarra erabiliz okupa horiek bidaltzea, beraz, nahitaez, adimena erabili behar zela okupak baserritik bidaltzeko.

Hasteko, anai-arreba guztiekin (Joxe, barne) elkartu zen irtenbiderik onena zein zen ikusteko. Buruari hainbat buelta eman ostean, Patxiri argia, ura eta gasa egun batzuetarako kentzea ideia ona izan zitekeela pentsatu zuen, eta halaxe jakinarazi zion bere anai-arrebei.

- Argie, gasa eta ude kenduko bagenizkiau, ezingo die bertan bizi. - esan zuen Patxik.

- Ez dek idea txarra. - erantzun Joxek.

Hainbat telefono deien ostean, argia, gasa eta ura kentzea lortu zuten. Patxik bere anaia Joxeren etxean egiten zuen lo egunero. Goizean goiz esnatu eta paseotxo bat emanez baserrira hurbiltzen zen ea zerbait aldatu zen ikusteko asmotan.

Argia, ura eta gasa kendu zenetik astebete pasatu zen jada Patxik baserritik kanpo.

- Nola ostia bizi daike argik, urik eta gasik gabe. Kabenzontz!! - pentsatu zuen Patxik.

Beste zerbait egin beharra zegoela erabaki zuen, baina ez zitzaion ezer bururatzen. Halako batean, baserri barruan kamerak zituela etorri zitzaion burura. Kamera hoiekin bertan bizi ziren pertsonak identifikatu zitezkeen, eta beraz, errazagoa izango zen poliziaren bidez bertatik ateratzea.

Goiz osoa pasa ostean bertan pasatzen ari zena ikusten, pertsona bat identifikatzea lortu zuen. Familiako aita zen eta 40 urte inguru zituen. Bistaz ezagutzen zuen, eta orduan, bere izena bakarrik behar zuen. Jendeari galdetzen aritu zen arratsalde osoa, eta azkenean, bere izena zein zen lortu zuen: José Luis Castro Carrillo izena zuen.

Hurrengo egunean udaletxera joan zen, ea bertan erroldatuta zegoen jakitera. Eta halaxe zen, bertan erroldatuta zegoela ikusi zuen. Hau ikusi bezain laster, Ertzaintzari hots egitea erabaki zuen. Baina, hauek ezin zutela ezer egin esan zioten.

- Ertzainek ezin omen dute ezer ez in. - esan zion Patxik Joxeri.

- Ordun, noiz kristo hartzen ditek parte polizia hauek. – erantzun Joxek.

- Etzekiat. – erantzun Patxik.

Patxiren helburua poliziak José Luis Castro Carrillo okupa atxilotzea zen, eta horretarako, okupa horrek delitu bat egin beharra zeukan. Eguneroko legez, egunkaria eta ogia (baserrikoa, noski)

erostera joan zen Joxe herriko okindegira. Etxera iritsi orduko egunkaria irakurtzen hasi zen, bere anaia bazkaltzen ari zen bitartean. Beti bezala, atzetik aurrera hasi zen irakurtzen. Halako batean, herriko albisteetara iritsi zen.

- Patxi, gaur omen dek hauteskundetan mahaien sartzeko zozketea. - esan zion Joxek Patxiri.

- Nei, berdin tzaiak. 70 urte baino gehiagokok ezin diau zozketan sartu. - erantzun Patxik.

- Hemen esateik hauteskunde eunen ez baldin bahaiz azaltzen, atxilotua izango aizela. - erantzun Patxik.

- Ostia, inda zeukeau. Zozketa iten dikena nere laune dek, Joxe Mari. Beai amañatzeko esango zioat eta harta José Luis Castro Carrillo okupa aterako dek mahaiburu izateko. Okupa ez dek enterau ere ingo eta ez baldin badek azaltzen, atxilotua izango dek. - esan zion Patxik bere anaiari.

Eta halaxe egin zuen. Joxe Mari lagunari zozketan tranpa "txiki" bat egiteko eskatu zion. Hasieran, Joxe Mari ez zegoen oso ziur, baina lagunarengatik egin zuen. Zozketan, José Luis Castro Carrillo atera zen mahaiburu gisa.

Hauteskunde egunean, ez zen azaldu. Beraz, hurrengo egunean atxilotua izan zen eta bere familia guztia Patxiren baserritik atera zuten. Okupek Patxik hain gustukoa zuen Barri txakurra kaiola batean zuten sartua. Poliziek Barri txakurra kaiolatik ateratzea lortu zuten.

Patxik, hilabete inguruko lanaren ostean, baserria berreskuratu zuen. Barri txakurrari ongi etorria eman zion. Argia, gasa eta ura berriz ere martxan jarri zituen. Okupa familiak egindako hondamendiak ere txukundu zituen eta berriro ere errutinarekin jarraitu zuen: arratsaldeko zazpiretan ohera joanez eta bostetarako jaikiz. Eta hau guztia, bere baserrian. Patxi oso pozik bizi izan zen eta herrian berak eginikoa barra-barra entzuten zen.

Gaur egun, Patxi ez dago gure artean, baina beti ezagutuko zaio gizon burutsu bat bezala. Ez ahaztu... **asko balio du indarrak, gehiago buru azkarrak !!**